



Pasaiako Udalak datorren ekainaren 2rako, Migrazio eta Aniztasun Arlotik, Topagune bat antolatu du. Helburua da Pasaian, eta Euskal Herrian, leku askotako jendea elkarrekin bizitzeak berekin dakartzan ondorioez egin den parte-hartze prozesuaren emaitzak partekatzea, detektatu diren premiak, erronka eta konpromiso zehatzak konpartitzea.

Illo horretan, egiaztatu behar dugu eta berretsi, ez dagoela immigrazioko euskal politikarik. Egungo esparruarekin ezinezkoa da; izan ere, gai honetan eskumen eksklusiboak estatuak dituzte, gure independentzia galarazten duten estatuaren subiranotasunaren parte dira. Gaur egun, Euskal Herriak, herri bezala, nazio bezala, ez du gaitasun juridiko-politikorik migrazio politika propioa garatzeko. Ez daukagu burujabetza osorik. Egun, arlo honetan daukaguna da, onenean ere, Frantziako eta Espainiako estatuaren legeria gure lurralde zatikatuan kudeatzeko eskumena, eta legeria horren ondorio negargarriak kudeatzea, egoitza, hiritartasun eta naziotasun gaietan, batetik, eta, bestetik, atzeritartasun gaietan.

Berez konplexua den errealitate hori kudeatzea eratutako estatu eta haien eskualde-konglomeratuentzat erronka handia bada, nola ez da izango, bada, Euskal Herria bezalako herrientzat, kultura eta politika aldetik gutxiagotuak egonik.

Horrek esan nahi du, estatu horiek ez bezala, oinarrizko gai askotan esku-hartze publikorako tresnarik ez daukagula eta horretaz gain, afera hau bere konplexutasun osoan jorrazteko tresna estrategiko bat falta zaigula: haien jatorria edozein dela ere, gure herrian bizi diren guztiei egoitzabaimen eta herritartasun eskubide oinarrizkoa ezin bermatua. Eskubide hori erabat eta alde bakarretik berentzat hartzen dute estatu horiek, beren "atzeritartasun eta naziotasun" politika murriztaileak egiteko, eta azken buruan, beren burujabetzaren oinarri gisa.

Pasaiako Udaleko gobernu taldea egoera honetaz erabat jakitun izan da eta da egun ere. Baina era berean, badakigu muga eta baldintzatzaile indartsu horiek gorabehera, migrazio fluxuen ondoriozko aniztasunak eragiten duela Pasaiako eta Euskal Herriko eguneroko bizimoduan eta aurrerantzean ere hala segituko duela. Horrexegatik hartu genuen geure gain gai hau, eta horrexegatik jarri genuen abian, duela lau urte, Migrazio eta Aniztasun Arloa,

- erroldatze garaian, Udal honek irakurketa propioa eta berariazkoa egin du, jatorri aldetiko bereizketarik egin gabe pertsona guztien eskubideen defentsan,
- errealitate horri aurre egiteko Udala baliabideez eta edukiz hornitu du,
- zeharkakotasunez bultzatu du Adingabekoei Harrera Ona egitearen Sustapena, jatorria alde batera, haur eta gazteen eskubide guztiak bermatuz.
- Programa garatu du batez ere bi une giltzarritan esku hartzeko: heltzean harrera egitean, eta kokatze garaiko bizikidetzan,
- eta geure aletxoan ekarri dugu Migrazio eta Aniztasun politika erreal, zeharkako, nazional eta elkarrekiko aitortzan oinarritutakoa garatzeko.

Era berean, garbi geneukan era honetako esku-hartze motarako oraindaino egiten ziren "diagnostiko" formaletatik harago jo behar genuela; izan ere, haietako gehienak gure errealitateak dituen bereizgarriari ongi adosten ez zaizkion egoeretatik inportatuak ziren, eta herritarren parte-hartzea ordezkatzeko duten metodologia eta teknikekin eginak. Herri honen eraberritze eta hobetzearen aldeko konpromisoak, herritik bertatik eginak, behartzen gintuen, kasu honetan ere, ahalegin bat egitera eta geure testuinguru historikoari eta herri gisa dugun gizarte, politika, hizkuntza eta kultura errealitateari egokitutako diagnostiko bat bultzatzera. Hau da, hemendik bertatik, behetik, eta guztion artean.



Ukaezina zen arlo honetan gure udalerrian eta Euskal Herrian zegoen hutsunea, eta ezin zen gehiago luzatu hemen jaiotako pasaitarrekin eta munduko beste leku batzuetatik etorritakoekin gai hau lantzeko ditugun mugak partekatzea eta horretaz gain, egoerak, premiak eta pertzepzioak, eta gai honetan gutako bakoitzak ditugun gaitasunak eta potentzialtasunak.

Hori egiteko gauza izanez gero, konpromiso gutxienerako batzuk bilatu eta baterako erantzukizunean uztartu ahal izateko aukera gehiago izango genuen, eta bigarren urrats bat eginez, dinamika berriak sortzeko aukera, ezarritako muga horiek gainditzen laguntzeko. Kontua da jatorri ezberdintasuna oztopo bat ez izatea gure herrian eta Euskal Herrian bizikidetzarako; aitzitik: erronka bat izatea, Pasaiako udalerrientzat eta Euskal Herriarentzat, beste garai batzuetan baino baldintza hobeetan, zuhurtasunez eta erabakitasunez erantzun ahal izateko, eta sendotuko gaituen elementu bihurtuz.

Era berean, jakitun ginen gai honek planteatzen dituen erronken konplexutasunagatik beragatik ez zela erraza izango, eta halaber bagenekien mereziko zuela, gune, konplizitate eta aurrez sortu gabeko edo ezarritako sareak sortzea ekarriko zuenez gero. Hau da, gai honetan ere, besteetan bezala, erabakitasun osoa dugu herria eraikitzeko, herria egiten jarraitzeko, eta hori ahal den sektore, eragile eta herritar gehien artean egiteko, geure esperientzia aberatsetik abiatuz baina baita, beharrezkoa joz gero, bide berriak irekiz ere.

Horrela ekin genion prozesu honen lehen zatiari, eta uste dugu, funtsean, eta abiatzean genituen oztopoak, zailtasunak eta hutsuneak kontuan harturik, lortu nahi genuen erronka lortu dugula.

Udal honek, pertsona, eragile eta pasaitar guztiekin, gaurtik jada hitza eta borondatea konprometitu nahi ditu horretan. Arlo honetan ere aurrera egin nahi dugu herri eta nazio bezala tresna eta baliabide osoak hornituko dizkigun bidetik, hartara elkarren errespetu eta ezagutzan, berdintasunean eta elkartzunean oinarritutako politikak sustatzeko. Hemen jaio garen edo beste leku batzuetan jaio direnen politika, gizarte, ekonomia, hizkuntza eta kultura eskubideak erabat bermatzen dituzten politikak bultzatzeko, hemen bizi eta lan egiten dugunez, hemengo zati garen guztionak. Bizikidetzeta benetan plural, demokratiko eta bidezkoaren oinarri sendoena diren tresna eta borondateak.

Horregatik, datorren ekainaren 2an, arratsaldeko 6:30etan Trintxerpeko Alkateordetzan, topaketa bat egingo dugu prozesuan parte-hartzen duten guztiekin, gizarte, politika, kultura eta kirol eragile guztiekin, gure udalerrira osatzen duten jatorri ezberdineko pertsona guztiekin, parte-hartze prozesutik ateratako ondorioen berri emateko.

Eta hori egingo dugu gai hau jorratzeko dagoen benetako eskaria jasoz, eta azterketa prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko dagoen exigentziari erantzuna emateko. Horrela, ditugun premietatik lehenengo erantzuna eskari horiexei emango diegu, horretarako bideak sortuz, erraztuz, ezarritik: bilguneak eta dinamika sortuz. Eta bilgune horien artikulazioa, funtzionamendua, erabakiak eta jarduketak, aurreko prozesu guztia bezala, protagonistek berek erabakiko dituzte.

Udaletxetik, eragile instituzional gisa, pentsatzen dugu gure eginkizuna prozesuak erraztea dela, Pasaiako herritarren parte-hartzea aktibatzea, akuilatzea eta sostengatzea, baina inola ere ez, haien ordeztu hartzea erabakiak.